2018-06-01 OSTIRALA / 1424. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

txintxarri




# Hizkuntza ohiturei beste astinaldi bat emateko

Armairuari omenaldia egin ostean, Euskaraldia eta Lasarte-Oriako hamaikakotea aurkeztu dituzte /8-9

TXINTXARRI

## Dantzan, txiki eta handiak

Dantzari eta Dantzari Txiki egunak ospatu ditu Erketzek, beste dantza elkarteekin batera / 6-7

**Zegama-Aizkorri lasterketa egin du Jon Lasarte herritarrak: "Oilo ipurdia jarri zait bazter guztietan"** / 10

**Ostadarreko seniorrek mailari eutsi diote azkenean, Martutenek uko egindako plaza hartuta** / 11

HERNANI LANBIDE HEZIKETA
GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII · CIFP INNOVACIÓN SOCIAL
www.hernanilanh.eus
PRESTAKUNTZA
LANBIDEA
ETORKIZUNA

AURRE MATRIKULA
Ekainak 4tik 15era

01 OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA
- Elementu metalikoen fabrikazioa
- Elektrizitatea eta elektronika

02 ERDI MAILAKO ZIKLOAK
- Mantentze-lan elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Instalazio elektrikoetan eta Automatikoetan teknikaria (Eskaintza Partzialean soilik)

03 GOI MAILAKO ZIKLOAK
- Animazio soziokulturala eta turistikoa
- Fabrikazio mekanikoko diseinua
- Sistema elektrotekniko eta automatizatuak

Karmelo Labaka 7 , 20120 Hernani
*Tren geltokitik 5 minutura eta autobusetik 2 minutura. 943551958
ikaslan Fp EUSKADI Lanbide
HERNANILHII




Eli Gondat Artelatz kooperatibako kidea udal ordezkariekin, aurtengo Aste Berdearen aurkezpenean. TXINTXARRI

# Plastikoen kutsaduraz kontzientzia hartzeko

'Plastikoek eragindako kutsadurarik gabeko planeta baten alde' lelopean antolatu dute Artelatz kooperatibak eta udalak aurtengo Aste Berdea. Bihar hasi eta ekainaren 8ra bitarte iraungo dute antolatutako ekintzek. Herritar guztiak animatu dituzte ekitaldi horietan parte hartzera

**Txintxarri**

Asteazken eguerdian aurkeztu dute 2018ko Lasarte-Oriako Aste Berdea. Ekainaren 5a da Ingurumenaren Nazioarteko Eguna, eta bete-betean harrapatuko du aurtengo egitarauak egun hori. Bihar, larunbata, izango da lehenengo ekintza, goizez. Herritarrek sortzen duten hondakinek ingurumenean sortzen duten kutsaduraz jabetu eta jarrera aldaketa bat eragiteko helburuarekin, Oria ibai ertzak garbitzera joateko aukera izango dute lasarteoriatarrek. Eli Gondat Artelatz kooperatibako kideak azaldu duenez, "ez da inolako lan astunik egin beharko", baina garrantzitsua izango da herritarrek kontzientziarik gabe botatzen dituzten zaborraren ondorioetaz jabetzeko.

Bertan parte hartzeko izena eman beharko dute herritarrek, eta, horretarako, 943-670-249 telefono zenbakia jarri dute eskuragarri.

Ekainaren 4ean, astelehena, berriz, Urnietako ontzi hondakinak sailkatzen dituzten fabrikara bisita gidatua antolatu dute. Bertara joateko autobusa jarriko dute (anbulategitik), eta parte hartzeko izena ematea ezinbetsekoa da.

Amaitzeko, ekainaren 5ean eta 6an informazio puntua jarriko dute Okendo plazan, 10:00etatik 13:00etara, eta berrerabiltzeko poltsak banatuko dituzte. Ekainaren 7an eta 8an ere izango da aukera hori, baina arratsaldez; 16:30etik 19:30erako ordutegian.

## Egitaraua

**Ekainaren 2a**
- **09:30:** Oria ibai ertzaren garbiketa.

**Ekainaren 4a, astelehena**
- **09:30:** Bisita gidatuak egingo dira Urnietako ontzi-hondakinen sailkatze fabrikara. Kontsumo arduratsuaren inguruko tailerrak egingo dituzte..

**Ekainaren 5a eta 6a**
- **10:00-13:00:** Informazio gunean poltsa berrerabilgarrien banaketa, Okendo plazan. Horma irudia sortuko dute plastikozko botilek tapoiekin.

**Ekainaren 7 eta 8**
- **16:30-19:30:** Informazio gunean poltsa berrerabilgarrien banaketa, eta horma irudia sortzea, Okendo plazan.



TXINTXARRI

## 25. urtea laguntzeko diru sorta

10.000 eurorekin lagunduko du Lasarte-Oriako Udalak Aterpearen hogeita bosgarren urteurrena. Diru sorta horren bitartez mende laurdena ospatzeko antolatu dituzten ekintzak finantzatuko dituzte. Gastu osoaren ia %100 kubrituko du elkarteak, guztira 10.500 euroko gastua aurreikusi baitu. Ramon Ormazabal lehendakariak eskerrak eman dizkio udalari emandako laguntzagatik.

## Uistin kaleko berrurbanizazio lanak hasi ditu udalak

Asfaltos y Construcciones Morga enpresa arduratu da lan horiek egiteaz; 235.287 euroko kostua izango du

**Txintxarri**

Hasi dira Uistin kalea berrurbanizatzeko obrak. Hori dela eta, eremua hesitu egingo dute obrek iraun bitartean, autoek bertan aparkatu ez dezaten.

Obraren lehenengo fase horretan aparkaleku batzuk bakarrik kenduko dira, zehazki ibaiarekiko perpendikularra den eremuaren eskuin aldean daudenak, baita dagokion espaloia ere.

Udalak Asfaltos y Construcciones Morga enpresari adjudikatu zizkion berrurbanizatzeko obrak, 235.287 euroan. Obra horren bidez, lur gaineko aparkatzeko 28 plaza gehituko dira, argiteria elektrikoa berritzeaz gain.

Udalak barkamena eskatu du obrek irauten bitartean ezinbestean sortuko diren eragozpenengatik, eta espero du herritarrek errespetatzea behin-behinean jarriko diren seinaleak.

Obra hau herritarrek hautatu zuten 2017ko aurrekontuetan, aparkatzeko dagoen arazoa konpontzeko helburuz.




TXINTXARRI

## Gidabaimena euskaraz

Buruntzaldeako udalek gidabaimena euskaraz ateratzen duten ikasleak sarituko dituzte, beste urtebetez. Horrela, ikasleak bultzatu nahi dituzte esparru horretan euskara erabiltzera. Lasarte-Oriako Mugican dago alor teorikoa euskaraz ateratzeko aukera.

# Hamaika egunez dantza eta antzerkia taulagainera

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak bihar emango dio hasiera urteroko hamabostaldiari. Zabaleta auzoko jaiekin bat egin, eta bertako plazatik irtenda Okendora iritsi bitartean desfilea egingo dute kaleetan barrena. Ekainaren 15ean amaituko da aurtengo hamaseigarren edizioa

**Maddi Noriega**

Hamaseigarren urtea beteko du aurten Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren hamabostaldiak. Urtero lez, Lasarte-Oriako gaztetxo eta helduek ikasturtean landutakoak erakutsiko dituzte Manuel Lekuona kultur etxean. Zabaleta auzoan emango diote hasiera egitasmoari: desfilea bertako plazan hasi eta Okendon amaituko dute. Bidean, Buenos Aires aldapatik behera, anbulategi parera iritsi eta Kale Nagusia zeharkatuko dute.

Astelehenean Landaberri eta Sasoeta ikastetxeko LH1, LH2 eta LH3ko ikasleek sei obra erakutsiko dituzte taulagainean.

Asteazkenean, berriz, Sasoetako LH5-6. mailakoen txanda izango da, eta horiek *Aupa Etxebeste* eta *Mafia* antzezlanak eskainiko dituzte.

Ostegunean, dantza eta antzerkia uztartuko dituzte, eta herriko kaleetan barrena erakustaldia egingo dute. Ostiralean HH5 eta LH 1-2-3 mailako gaztetxoek euskal dantzen erakustaldiarekin emango diote hasiera asteburuari.

Halere, ekainaren 15era bitarte izango dira beste hainbat ekitaldi.



## Egitaraua

**Ekainaren 2a, larunbata**
- **12:00** Desfilea. Zabaleta auzoko plazatik Okendora.

**Ekainaren 4a, astelehena**
- **09:30ean eta 19:00etan** *Sei anaiak*, *Arratsalde bat zineman*, *Terrazarrak* eta *Dendatarrak* antzerki obrak.
- **11:30ean eta 19:00** *Zirkuz marabillux!* eta *Zinema sesion!*

**Ekainaren 6a, asteazkena**
- **10:00etan eta 19:00etan** *Aupa Etxebeste* eta *Mafia.*

**Ekainaren 7a, osteguna**
- **Arratsaldean** Antzerkia eta dantza herriko kaleetan.

**Ekainaren 8a, ostirala**
- **19:00etan** Euskal Dantza.



NEURE KABUZ

**GORKA ALVAREZ**

## Munstro bat Anoetan

Maiatzeko asteburu arrunt batean, kirolaren inguruan, familiartean, lagunartean, guztion artean ametsetan; Anoeta estadioan.

Normalean gizonezkoentzat soilik ireki ohi duten berdegunearen inguruan 20.000 lagun bildu ginen. Zelaian 22 jokalari, 3 epaile eta baloi bat. Bi astean behin ematen den errutina esango dute askok; 22 gizon baloi baten atzetik korrika dioen topikoa beste askok; futbolaren negozioaren inguruan jendetza, ohiko lez, deitoratuko dute hainbatek.

Berdegunean geundenontzat ordea, ez zen errutina, ametsa baizik. Futbola emakumeena ere badela erakusten aritu ziren, ze arraio emakumeena ere badela? Futbola ez ote da ba gehiago emakumeena gizonezkoena baino? Zergatik ez? Negozioaren ikuspegitik begiratuta oso urrun. Hemen ez daude milioiak tartean, hemen ez daude futbol negozio horrek mugitzen dituenaren ageriko aztarnarik. Kirolaren funtsetik hurbil. Lehia garbiagoa, justuagoa eta atseginagoa. Hitz itsusi gutxi, lehiaketa berdina, baina oinarrian futbola bera; purua, garbia, autentikoa, garaipen gosea pizten duen partidu horietakoa eta derbia gainera; derbi sanoa.

Badoa pausoz pauso emakumezkoen kirola aurrera, jendearen ahotan dabil kalean, egunkarietan, asteburuoro telebistan izar iheskorren moduan bada ere, baina oraindik ere ez da iritsi inoren erraietara. San Juan bezperako suaren antzera itzali egiten dira Anoetakoa bezalako ekitaldiak. Jarraipen falta nabaria da edozein kiroletan. Bera Berak liga irabazi du, belar hockeyko neskak lauko finalean daude, Maialen olinpiadetan nagusi izan genuen bai, baina distira hori eguneroko munstroak irensten du. Gure gizartearen erraietan ederki bizi den munstroak. Egunero elikatzen dugun munstroak eta nik neronek ere, nahi gabe bada ere, barruan daramadan izaki beldurgarriak. Barrutik kanpora atera nahian ibili zale garenok, badakizue zertaz ari naizen. Gizarte gaixo honetan kirola berdintasunaren aldarri izatea libre da, baina egunerokotasuneko ñabardura ñimiñoetan dago guzti honen giltza. Hezkuntzan neurri handi batean.

Eguneroko bizipenetan , uneoro presente daukagun munstro horren bidelaguna izan eta pixkanaka Anoetatik etxera, etxetik ikastolara. Desagertarazteko pausoak emanaz edo parekide den munstro garbiago, zuzenago edota justuagoa bat jaio dadin lan eginez.

Lagun handi bati irakurri nion bezala: "Gaur Anoetan ikusi duguna ea hemen bildu diren txikientzat egunerokoa bihurtzen den".









Hozkailu solidarioko arduradun Alvaro Saiz, Lasarte-Oriako udal ordezkariekin. TXINTXARRI

# Komikien bidez elikagaien xahutzea galarazteko

Hozkailu solidarioen sarea martxan jarri eta gero, Hozki pertsonaiaren abenturak aurkeztu ditu Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkarteak. Udalak babestuta, Lehen Hezkuntzan banatuko dute komikia, elikagaiak aprobetxatzeko ohitura bultzatzeko

**Txintxarri**

Hozkailu batekin hasi zen dena, baina honezkero proiektu handia bilakatu da. FAO Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak dioenez, elikagaien heren bat alferrik galtzen da, nahiz eta zati gehiena aprobetxagarria izan. Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkarteak 2015ean jarri zuen lehen hozkailu solidarioa, hain zuzen janari hori aprobetxatzeko. Egun, Lasarte-Oriakoaz gainera beste 20 hozkailu solidarioen sarea osatu dute. Bakoitzeko 200-300 kilo elikagai berreskuratzen dituzte. Orain urrats bat gehiago egin dute. Gaztxoengan jarri arreta, eta elikagaia ez xahutzeko ohitura bultzatzeko komiki bat argitaratu dute: *Hozkiren abenturak*.

"Haurrak dira aldaketaren eragileak". Alvaro Saiz Ruiz Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkartearen presidenteak aurkeztu du komikia, Lasarte-Oriako udaletxean. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedok eta Izaskun Oroz teknikariak lagundu dute, baita Jose Maria Urdanpilleta Zerbitzu Publikoen arduradunak.

Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendua dago komikia, eta Lasarte-Oriako ikastetxeetan banatuko dute. "Zailagoa da gurasoei deitzea ikastaro bat egin dezaten elikagaiak aprobetxatzeko, ekonomia hobetzeko eta xahutzea saihesteko. Haurrek erakutsi diezaiekete", esan du Saizek.

**Modu ludikoan**

Modu entretenigarrian erakusten du argitalpenak soberakinak ez galtzen. "Ez da irakurri eta gordetzekoa. Gidaliburu gisa kontsultatu daiteke nahi adina".

**SOBERAKINAK APROBETXATZEN ERAKUSTEN DU KOMIKIAK, MODU DIBERTIGARRIAN**

Elikagai motaren arabera hozkailuan gordetzeko modua, erosketa eraginkorra nola egin eta, oro har, hondakinak gutxitzeko aholkuak erakusten ditu Hozki pertsonaiak.

Horrelako argitalpen bat sustatzen lehen udala da Lasarte-Oriakoa. 1.500 ale inprimatuko dituzte, eta Lehen Hezkuntzako hiru ikasturteetan banatuko dituzte. Ikastetxeekin harremanetan jarriko dira, Galdakaoko Boluntarioen Elkarteak hitzaldi bat eman dezan. Ikasleei lantxo bat eginaraziko zaie, gero hozkailu solidarioa hornitzen joan daitezen.

Proiektu berria da, baina uste dute beste udalerrietara zabalduko dela. Janariaren xahutzean jarri dute indarra, baina aurrerago beste gaiak landu nahi lituzkete. "Obesitatea eta beste gizarte gai batzuk, adibidez", jakinarazi du Orozek. Acevedoren arabera, garrantzitsua da prebentzioa lantzea. "Gainera, orain asko hitz egiten da birziklatzeaz".

## Goi-tentsioko linea egiteko baimena eman du udalak

Alkatearen jarrera "malgua" salatu du Aire Garbia plataformak; "zorrotzago" jokatu zezakela azaldu dute

**Txintxarri**

Aire Garbiak aurkeztutako 350 sinadura baino gehiagori jaramonik egin gabe, Lasarte-Oriako Udalak erraustegiko goi-tentsioko linea egiteko baimena eman du.

Horrela, Aire Garbiaren "kezkak bete" dira. Espero moduan, udala "malgua" izan dela azaldu du plataformak, ziur baita "askoz zorrotzago" joka zezakeela herritarren osasunaren, ekonomiaren eta ingurumenaren aldeko defentsan.

Lasarteoriatarren gehiengoak ez duela erraustegirik nahi azaldu du. "Horregatik ezin diogu sinetsi alkateari esaten duenean lasarteoriatar gehiengoaren nahia defendatuko duela, nahiz eta bera ados ez egon".

Dena den, goi tentsioko linea ez eraikitzeko abiatutako "kanpaina xumearekin" pozik agertu dira.




TXINTXARRI

## Lanuzteak prekarizazioaren aurka

Lan hitzarmenen estatalizazioa salatzeko, LAB sindikatuak mobilizaziora deitu du. Michelin eta Jema Energy enpresen atarian ordubeteko lanuzteak egin zituzten asteazkenean. *Estatalizazioa = prekarizazioa. Hemen lan egin, hemen erabaki. Bertako hitzarmenaren alde!* lelopean, prekarietatearen kontrako eta lan baldintza duinen aldeko aldarrikapena egiteko irten dira kalera. Horrez gainera, Euskal Herriko lan esparru propioa defendatu dute, eta ohartarazi dute gero eta Espainiako hitzarmen gehiago ari direla inposatzen.

## Lesbikomikia argitaratu dute

Teresa Castro Gutierrez sortzaileak *L.S.B.ANA* komikia aurkeztu du asteartean, Manuel Lekuona kultur etxean. Komikia sortzeko aurrez egindako lana azaldu die Castrok aretoan bildutakoei, eta liburuxka sortu aurretik paperetan egindako bozetoak ere ikusi ahal izan dira aurkezpenean. Protagonista "aniztasun sexualaren aldeko ekintzaile alaia" eta lesbiana da, autorearen esanetan.




TXINTXARRI

# "Komunikazioa sustatu behar dute gurasoek"

Paula Kasares adituak 'Komunikazioa eta haurren zoriontasuna' hitzaldia emango du asteartean, Merceron. "Hitz egiten ikasteko prozesuan bidelagun izan behar dute gurasoek". Haurrak euskara jasotzeko, hizkuntza elkarbizitza irudikatu beharra dago

**Txintxarri**

"Bizitza komunikazioa da". Paula Kasares filologo eta antropologoak familian komunikazioak duen garrantziari buruz ikertu du, eta arreta berezia jarri du jaioberriengan. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta, *Komunikazioa eta Haurren Zoriontasuna* hitzaldia emango du datorren asteartean, 17:00etan, Antonio Mercero gunean. Helburua lau eta zazpi hilabete bitarteko gurasoei haurren komunikazio beharraz eta gogoaz informatzea da. "Hasieratik komunikazioa erraztea, piztea eta laguntzea oso onuragarria da haurrarentzat. Komunikazioari begiratzea haurraren zoriontasunari begiratzea da", esan dio Kasaresek TXINTXARRI-ri.



Paula Kasares, Askatasunaren parkean. TXINTXARRI

Zer nolako komunikazio beharrak ditu umeak? Nola susta daiteke komunikazioa? Zein momentutan dago hizkuntza prozesuan? Nola lagun diezaiokegu hizkuntza edo hizkuntzak ikasten? Galdera horiek guztiak erantzungo ditu Kasaresek.

Komunikazioa gizakiari lotuta dagoen ezaugarria denez, jaiotzetik bertatik komunikatzen da haurra. Are gehiago: "Amaren sabelean bertan hasten da prozesua, hizkuntzaren doinuekin ohitzen baita. Jaiotzen denean emozioek pizten dute komunikazioa. Gurasoek keinu horiek interpretatu behar dituzte behar horiez jabetzeko". Hasieran hitzik gabeko komunikazioa da. Gurasoek badute zeregina une horietan: "Komunikatzeko gogoari erantzun egokia eman behar zaio. Horretarako egokiak dira elkarrizketa xumeak edo abestiak".

Halere, hizketan hasi arte bide luzea egiten du haurrak. Horretan ere bidelagun izan behar dute gurasoek. "Jarrera proaktiboa izan behar dute. Aukera guztietan haurrarekin solastatu eta mintzarazi egin behar zaio".

Horrez gain, familiek hizkuntza elkarbizitza irudikatu behar dute. "Umeak txikitatik euskararekin harremana izatea nahi bada, orain da momentua hori planifikatzeko. Azken finean, haurrak txikitatik euskaraz hitz egin dezan nahi bada, euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera nahikoak eta askotarikoak eman beharko zaizkio, euskara gizartean ahulagoa baita".



TXINTXARRI

## Lasarteko zirkuitua gogoan

Lasarte, Donostia, Hernani, Urnieta, Andoain, eta berriro ere buelta herrira. 1920eko hamarkadako Europako lasterketa entzutetsuenetakoak itzuli hori egiten zuen. Sona handia zuen Lasarteko zirkuituak, eta errepide bazterrean zaleak biltzeaz gainera, auto eta pilotu onenak etortzen ziren herrira. Hori gogoratzeko, bigarren aldiz antolatu zuten joan den larunbatean San Sebastian Circuit Spirit, auto klasikoen rallya.



TXINTXARRI

## Zabaleta, motorrak berotzen

Suziriaren soinuarekin Zabaletako jaiei hasiera eman zitzaien asteartean. Horrekin batera, haurren gozamenerako tailer eta ekintza ugari izan dira egunero. Argazkian ikusi daitekeen bezala, antzerkiak ere izan du bere tartea Kukukako taldeen eskutik. Bart helduek Intza Alkain eta Bea Egizabalen umorezko bakarrizketez gozatu zuten. Ekintza horiek guztiak motorrak berotzeko balio izan die auzotarrei. Gaur, ostirala, Teresa sorgiña dator, eta jaiak eztanda egingo du. Ekitaldiz betetako asteburua dago aurretik. Musika, dantza, herri-kirolak... denetarik izango da Zabaleta auzoko jaietan.




"Komunikazioa eta haurraren zoriontasuna"

HITZALDIA: Paula Kasares
Ekainaren 5ean, 17:00etan
MERCERO hitzaldi aretoan

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

# Dantzarien asteburua

## Dantzari eta Dantzari Txiki egunak ospatu ditu Erketz dantza taldeak



Kalejira erraldoi batekin bukatu zuten igandeko Dantzari Txiki eguna. TXINTXARRI



Igandeko Dantzari Txiki egunean sei taldek hartu zuten parte. TXINTXARRI



Dantzari gazte talde bat, gorputza mugitzen hasteko irrikitan. TXINTXARRI



Makil-dantzaz gozatu zuten Michelinera joandako ikus-entzuleek. TXINTXARRI



Kukukako gaztetxoek zinta-dantza ikusgarria eskaini zuten. TXINTXARRI



Donostiako Goizaldi eta Gasteizko Indarra taldeak izan ziren aurten Dantzari egunean, Erketzekin batera. TXINTXARRI



Euskal Herriko dantza ezberdinak ikusteko aukera izan zen Loidi Barren pilotalekuan. TXINTXARRI



Arratsaldeko emanaldi nagusiaren aurretik, herriko kaleetan dantzatu zuten gaztetxoenek. TXINTXARRI

Gogotik saiatu da, baina ez du lortu. Eguraldi txarrak ez du festa zapuztu, eta gogotik gozatu dute herritarrek asteburuan. Dantzari eta Dantzari Txiki eguna ospatu ditu Erketz EDTk, Euskal Herri osotik etorritako beste hainbat talderekin: Goizaldi (Donostia), Indarra (Gasteiz), Urki (Andoain), Makaia (Faltzes), Ereintza (Errenteria) eta Lurra (Urretxu). Gure herria Kukukak eta Erketzek berak ordezkatu dute emanaldietan. Okendo plazan ziren egitekoak hasieran, baina eguraldia kili-kolo ibili denez, Loidi Barrengo eta Michelingo pilotalekuetan plazaratu dituzte emanaldiak talde parte-hartzaileek.

Helduen txanda izan zen aurrena, larunbat arratsaldean. Goizaldik, Indarrak eta Erketzek emanaldi bikaina eskaini zuten Loidi Barrenen. Hainbat herritar animatu ziren Dantzari eguna gertutik ikustera.

Igandean gaztetxoek hartu zieten lekukoa. Goizean, euririk egiten ez zuela aprobetxatuz, herrian barrena ibili ziren, dantzan, desfilatzen eta kaleak girotzen. Andatza plazatik irten ziren, erdigunera jaisteko gero. Zumaburu aldera joan ziren ondoren, eta Askatasunaren plazan bukatu, bazkaltzera joan baino lehen. Arratsaldeko emanaldi nagusirako indarrak hartu, eta zur eta lur utzi zituzten Michelingo pilotalekura joan ziren guraso eta lagunak. Hamar bat minutuz aritu zen talde bakoitza. Urkik, Makaiak, Lurrak, Ereintzak, Kukukak eta Erketzek berak hartu zuten parte.

Mende erdi bete du aurten herriko dantza taldeak, eta ospakizunetan murgilduta dabil. Ekainaren 16an, larunbatarekin, San Pedro jaien aurreko emanaldi berezia eskainiko du, Okendo plazan. Erketzeko kideek aurreratu dute herriko hainbat taldek hartuko dutela parte ikuskizun horretan. Makina bat ekitaldi egin dituzte 2018an, eta beste hainbeste geratzen zaizkie oraindik.



Dantzari Txiki egunean parte hartu zuten taldeek oroigarri bana jaso zuten, kultur zinegotziaren eskutik. TXINTXARRI



Igande arratsaldeko kalejira erraldoieko uneetako bat. TXINTXARRI

# Maratoitik Euskaraldira

Euskaraz ahal den guztietan egitea, uneoro. Hori da, labur-labur, azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri osoan egingo den Euskaraldiaren funtsa. 350 herri baino gehiagotara hedatu dira 'ahobiziak' eta 'belarriprestak'; Lasarte-Oria hartu dute eredutzat


Eustakio Mendia musikariak Lasarte-Oria bisitatu zuen. TXINTXARRI

**Iñigo Gonzalez**

Safri Duoren doinuak entzutean denoi etorri zitzaizkigun oroitzapen ederrak burura ostiral arratsaldean: hizkuntza ohiturei astindu bat eman zion Lasarte-Oriak, Euskararen Maratoiaren 9. edizioan, duela bi urte. Orduan sartu genituen gure hiztegian *ahobizi* eta *belarriprest* hitzak. Rol horiek protagonismo asko izango dute aurtengo ekimenean: Euskaraldia du izena, eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo da, Euskal Herri osoan.

Lasarte-Orian duela bi urte egindako ariketa hartu dute abiapuntutzat. 350 herri baino gehiagok eman dute izena honezkero, Lasarte-Oriak barne. Helburua: euskaraz hitz egitea, eguneroko jardunean, ahal den guztietan, uneoro. Bestela esanda: hizkuntz ohiturak aldatzea, puntuz puntu.

Ezinbestekoa izango da lasarteoriatarren laguntza. Duela bi urteko egitasmoan 2.000 herritarrek parte hartu zuten. Antolatzaileen helburua da kopuru horiek gainditzea: 3.000 *ahobizi* eta beste hainbeste *belarriprest* nahiko lituzkete. Erdal hiztun elebakarrak ez dira sartuko, eta 16 urtetik gorako pertsonek parte hartu ahalko dute. "Helduoi dagokigu erronka honetan protagonista izatea; ezin dugu karga hori umeengan utzi", adierazi zuen hamaikakoteko kide Rebeka Garzesek.

### Zortzikotetik hamaikakotera

Hamaikakotea? Ez al ziren ba zortzi? Duela bi urte, herriko zortzi pertsona arduratu ziren Euskararen Maratoia eta ondorengo asteak dinamizatzeaz. Aurten, handiagoa izango da taldea. Zortzi horietatik zazpik jarraitzen dute, eta lau fitxaketa egin dituzte: Xabi Carril, Larraitz Izagirre, Koro Dominguez eta Fati Serrano. Beste zazpiak ezagutzen ditugu honezkero: Joxe Mari Agirretxe, Estitxu Garmendia, Agus Mujika, Enara Ieregi, Mikel Izquierdo, Rebeka Garzes eta Joxe Mari Azkonobieta.

Taldea handitu izana ez zen izan aurkezpen ekitaldiko berrikuntza bakarra. Aurtengo erronkak, Euskaraldiak, abesti propioa dauka: *Izan Puntu*. Ane Labaka bertsolari herritarrak jarri dio letra.

Herri bakoitzean osatuko dituzte hamaikakoteak. Euskal Herri mailan ere bai. Talde horretako ordezkarietako bat, La Basu abeslaria, joan den asteko ekitaldian egon zen. Igo zen oholtzara, hartu zuen mikroa eskuetan, eta rapeatzeari ekin zion. Dantzan jarri zuen Okendo, eta baita txaloka ere, minutu batzuk geroago; Euskaraldiaren inaugurazio txupina bota zuen Lasarte-Oriako zerura.

Ondoren, herriko elkarte eta eragileak igo ziren oholtzara, duela bi urte ospetsu bihurtu zen armairu zuria koloretako puntuz betetzera. Elkarte bakoitzak itsasgarri bat jarri zuen. Bereziki hunkigarria izan zen azkena: Imanol Jimenez zenak espreski konpondu zuen armairu hori, Euskararen Maratoian erabili ahal izateko. Haren familia igo zen oholtzara, Euskaraldiaren leloa agerian uztera: *Izan Puntu*.

Lehertu zen festa, hasi da astinaldia. Azarora itxaron gabe, hasi gaitezke hizkuntz ohiturak aldatzen, edozein unetan, euskara gure ahotan erabili eta albokoen belarrietara bidaliz.


*Ahoa bizi, belarriak prest* abestiaz gogoratzen dira lasarteoriatarrak. TXINTXARRI


Primeran pasa zuten gaztetxoek Euskaraldiaren aurkezpenean. TXINTXARRI


Hamaikakoteko kideek eta herriko eragile eta elkarteek familia argazki erraldoia atera zuten, oholtza gainean. TXINTXARRI


La Basu abeslari bizkaitarrak dantzan jarri zituen ikus-entzuleak. TXINTXARRI



Gogoz eta ilusioz gainezka hartu du hamaikakoteak Euskaraldiaren erronka. TXINTXARRI


Aurkezpen ekitaldi koloretsua eta alaia izan zen joan den asteko ostiral arratsaldekoa. TXINTXARRI



Duela bi urteko Euskararen Maratoian ospetsu egin zen armairu zuria. Are politago dago orain. TXINTXARRI



Kantuan eta dantzan egiteko astirik eduki zuten hamaikakoteko kideek, eta baita herritarrek ere. TXINTXARRI



Imanol Jimenezen seme-alabek lagundu zuten armairu zuria koloreztatzen. TXINTXARRI

# "Zegaman bizitakoa ez dut beste inon ikusi"

**JON LASARTE** MENDI KORRIKALARIA

Euskal Herriko lasterketa bereziena egin du Lasartek: "Zegamako giroa izugarria da". Burua lasaitu behar dela dio. "Bestela, jendearen bultzadak zure erritmotik ateratzen zaitu"

**Adrian Garcia**

"Zorte ikaragarria" duela onartu du Jon Lasartek (Lasarte-Oria, 1981). Ez da gutxiagorako; Zegama-Aizkorri lasterketan parte hartzeko zozketan izena eman, eta lehenengoan egokitu zaio dortsala -8.000 eskaera baino gehiago daude 200 bat plazarentzako-. Lasterketa bakarra Zegamakoa, eta gustura aritu da. Gainera, bere helburu nagusirako entrenamendu gisa ongi etorri zaio; Ehunmilak lasterketa egingo du uztailean. Asteburu honetan ere beste urrats garrantzitsu bat egingo du prestaketa horretan: Leitzako Mendi Erronka (67 kilometro).


Jon Lasarte, lasterketa betean. TXINTXARRI

**Zer moduz bukatu zenuen lasterketa igandean?**
Oso ondo, espero baino hobeto azkenean. Lasterketa luzeetarako nago prestatuta, eta ezin dut maratoi batek eskatzen duen erritmo bizia hartu.

**6:19 denboran osatu zenuen ibilbidea. Ez da denbora makala lokatzetan aritzeko.**
Bai, poz-pozik nago. Sei ordutik jaistea nuen helburua, baina dena ezin da. Bitxia da, baina orain dela 15 urte egin nuen lasterketa, eta orduko denbora berbera egin dut.

**Zegama-Aizkorriren bigarren edizioan parte hartu zenuen. Zer desberdintasun aurkitu dituzu bi edizio horien artean?**
Erritmoa eta jendea. Asko igo da maila. Pentsa, lehenengo 200 lasterkariak 5:30 denboran sartu ziren. Eta jendearena izugarria da. Ibilbide guztian animatzen zaituzte. Bazter guztietan oilo ipurdia jarri zait.

**Mendian asko ibiltzen zara. Ba al da Zegamaren antza duen beste lasterketarik?**
Ez. Besteetan ere badago jendea animatzen, baina ezin alderatu daiteke. Lasterketarik handiena da. Beste lasterketetan ez naiz urduri jartzen, baina hemen irteeran hala nengoen. Ehunmilak izan daiteke antzekoa. Joan den urtean 116. kilometroan erretiratu egin behar izan nintzen. Han ere jendearen bultzada izugarria da.

**Lasterketako ibilbidea ezagutzen zenuen, beraz. Nola planteatu duzu lasterketa?**
Igande bat lehenago egin nuen. Orduan ikusi nuen nola hartu lasterketa. Lasaiago joan nahi nuen, baina jendeak bultza egiten zaitu, eta zure erritmotik ateratzen zara. Aizkorritik aurrera hasten da lasterketa azkar egiteko zatia; osorik iritsi behar da horra.

**Aizkorri lasterketa erdia da gutxi gorabehera.**
Bai, horregatik fresko iritsi behar zara horra. Zaila da, zeren jendeak tira egiten zaitu.

**Lasterkariaren lanetako bat burua lasaitzea da orduan.**
Horixe da. Izugarriak dira jendearen animoak. Aurten bizitakoa ez dut beste inon ikusi. Oso polita izan da.

**Gainera, lehenengoei bezainbeste animatzen zaie azkenekoei.**
Guk animo gehiago behar izaten ditugu.

**Lokatza asko zegoen lasterketa egunean. Beti izaten da zailagoa.**
Bai, azkenean posturak ez dira berdinak. Bi pauso gora ematen dituzunean, beste bat behera egiten duzu .

**Lasterketako profila ikusita, azken kilometroak aldapa behera dira. Halere, muskularki gogorrak egingo dira, ezta?**
Gainera, beti dago segadaren bat, espero ez duzun aldapatxoren bat. Hain zuzen, hara fresko iritsi behar da, hor galtzen delako denbora. Aurten oso gaizki zegoen bidea, lokatza asko zegoelako. Txorkatila osoa sartzen zen lokatzetan. Bestetik, hezetasun handia zegoen aurten, eta hidratatzea ezinbestekoa zen arazoak saihesteko. Nik botila txiki bat eraman nuen, eta bospasei aldiz hustu nuen. Eta, halere, muskularki justu iritsi nintzen.

**Leitzako Mendi Erronka duzu asteburu honetan. Zegama-Aizkorri ondoren, errekuperatzea tokatu zaizu, ezta? Nolako entrenamenduak egin dituzu aste honetan?**
Bizikletan ordubete asteartean, eta hiru ordu mendian asteazkenean. Ostegunean eta ostiralean atsedena, hankak errekuperatzeko.

**Ehunmilak dira zure helburu nagusia. Nola ari zara prestatzen horretarako?**
Urte osoan mendia egiten dut, eta iazko saialditik ez diot utzi entrenatzeari. Entrenamendu zehatzagoak azaroan hasi nituen. Astean sei egunetan entrenatzen dut. Aste barruan ordubeteko lanak dauzkat, eta asteburuetan sei, zortzi edo hamarrekoak.

**Prestatzaile bat al duzu?**
Orioko entrenatzaile bat dut. Beharrezkoa da, guk ez dakigueta horrelako gauzak eramaten. Erronka serioa da, eta jakin behar da prestatzen. Pixka bat antolatu genitzake entrenamenduak, baina hobe da dakien bati galdetzea.

**Ultrako distantziak prestatzeko askok bizikletan orduak sartzen dituzte. Zure kasua al da?**
Bai, bizikleta asko sartzen dut, beti ezin dira-eta hankak zigortu. Oso ona da bizikleta. Korrika eta bizikletan aritzen naiz asko, baina ez ditut biak uztartzen. Bat edo bestea egiten dut.

**Nola ikusten duzu zeure burua Ehunmiletarako?**
Ongi, geroz eta hobeto. Geldialdi txiki bat egin behar izan nuen, lanagatik kanpora joan behar izan nuelako hilabetez. Zalantzak izan ditut nire egoera fisikoaren inguruan, baina oso ondo noa, ongi erantzun didate hankek. Hori da garrantzitsuena; hankak fin edukitzea.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### ARETO-FUTBOLA
**HERRIKO TXAPELKETA**

**Buenetxea - Asador Irigoien**
Larunbata. 09:30. Michelingo kirolgunean.

**Txoko taberna Autocares Luiscar - Patricio Cocktail bar**
Larunbata. 10:30. Michelingo kirolgunean.

**Trumoi - Insausti Kattagorri**
Larunbata. 11:30. Michelingo kirolgunean.

**Viña del Mar - Izen Gabe**
Larunbata. 12:30. Michelingo kirolgunean.

### IGERIKETA
**OPEN SARIA**

**Infantil, junior eta absolutuak Gipuzkoa Open Saria, Richard Oribe X Saria proban parte hartuko dute.**
Larunbata. Goizez eta arratsaldez. Donostian.

### TXIRRINDULARITZA
**KADETEAK**

**Kadete mailako txirrindulariek XIV. Mendekostes sarian lehiatuko dute.**
Igandea. 10:00. Lezon.

**JUBENILAK**

**Jubenil mailako txirrindulariak M. Oiarzabal - A. Urkola Oroimenezkoan parte hartuko dute.**
Igandea. 15:30. Anoetan.

### TRIATLOIA
**GIPUZKOAKO SPRINT TXAPELKETA**

**Pasai Donibane Geltoki Motor V. esprin triatloian parte hartuko dute hainbat herritarrek. Gipuzkoako txapelketa da.**
Larunbata. 15:30. Pasai Donibanen.

### ERRUGBIA
**AITOR URANGA II. OROIMENEZKOA**

**Beltzak taldeko kideek Aitor Uranga II. Oroimenezkoa antolatu dute denboraldiari amaiera emateko:**
**10:30 - Errugby Eskola:**
**Jokalari eta Entrenatzaileak - Gurasoak**
**11:30 - Denboraldi amaiera ezusteekin**
**12:15 - Hirugarren denbora**
**15:00 - Hernani - La Unica**
**16:30 - Torneoa:**
**Beltzak Lasarteorians - Atc. San Sebastian - Quebrantahuesos**
**19:00 - Sari banaketa**
**20:00 - Hirugarren denbora, Loidi Barrenen**
Larunbata. Michelin kirolgunean eta Loidi Barren pilotalekuan.

### PILOTA
**4 T'ERDIKO TXAPELKETA**

**Labaka - Artetxe**
Ostirala. 20:00. Aginaga.

**Iruretagoiena - Lertxundi**
Larunbata. 16:00. Michelinen.

**INFANTILA**

**Intza 1 - Intxurre 2**
Larunbata. 16:00. Michelinen.

### HERRI LASTERKETAK
**5. SORGIN KROSA**

**Sei kilometrotako ibilbidea egin beharko dute lasterkariek.**
Larunbata. 11:00. Zabaleta auzoan.

**COPIA KORRE MUSIC NIGHT**

**Herriko hainbat lasterkarik Copia Korre Music night proba lehiatuko dute.**
Larunbata. 21:45.Donostian.

### MENDI LASTERKETA
**EH MENDI ERRONKA**

**Hainbat herritarrek EH mendi erronkan parte hartuko dute.**
Larunbata. 8:00. Leitzan.

**EREÑOTZUKO LASTERKETA**

**Hainbat herritarrek VII. Ereñotzuko mendi lasterketan lehiatuko dute.**
Igandea. 10:30. Ereñotzun.

### SQUASH
**HERRIKO TXAPELKETA**

**Herriko txapelketaren bigarren faseari eta kontsolazio faseari ekingo diote.**
Kiroldegian.

### PADELA
**HERRIKO TXAPELKETA**

**Herriko txapelketako lehen faseko ligaxkako azken partidak jokatuko dira.**
Kiroldegian.



Ostadar SKT, denboraldi amaierako ligako partidan, Mundarroren aurka. TXINTXARRI

# Porrotak, aurrera egiteko ezinbesteko ikasgaiak

Ostadar SKTko Erregional Preferenteak mailari eutsi dio, Martutenek uko egin dion plaza hartuta. Denboraldi kaskarra izanagatik, alde onak nabarmendu ditu Aizpurua entrenatzaileak: "Estuasunak talde izaera indartu du. Benetako masterra izan da"

**Adrian Garcia**

Ostadar SKTko Erregional Preferenteko futbolariek arnasa hartu dute azkenean. Estu ibili dira azken boladan, kategoriari eusteko emaitzak ezin lortuta. Joan den larunbatean jaitsierako kanporaketa galdu zuten Aretxabaletan, eta kolpe gogorra jasota itzuli ziren herrira. Halere, futbolean izaten dira ezusteak. Denboraldi osoan izandako zorte txarra irauli zaio behingoz Ostadarri, eta bulegoetan irabazi du zelaian galdutakoa. Martutenek ez du taldea aterako hurrengo denboraldian, eta plaza hori aprobetxatuko dute urdin-beltzek.

Emaitzak bestelakoa erakusten badu ere (2-0), kanporaketa irauli ahal izan zuten lasarteoriatarrek. Lehen zatia gogorra izan zen, eta gol aukera ugari izan arren, baloia ez zen ate barrura sartu. Aretxabaletaren golak kondenatu zuen gero Ostadarren nahia.

Denboraldian izandako gorabeherak igarota, "oso pozik" dago Axi Aizpurua seniorren entrenatzailea. Halere, taldeak ez du berehalakoan ahaztuko ikasturtea. "Benetako master bat izan da, gauza asko ikasi ditugu. Ikusita denboraldia-aurrean zer panorama genuen; taldea erabat berritu dugu, jende gazte askorekin, eta eskarmenturik gabekoak".

Horrexegatik kosta egin zaie martxa hartzea. Eguberrietan jaso zituzten pare bat errefortzu, taldera itzulitako bi jokalari ohi: Ganix Arrondo eta Aigor Aizpurua. "Bultzada bat eman digute, baina ez da nahikoa izan".

Halere, entrenatzaileak alde ona nabarmendu du: "Sufritu dugu, baina baita asko gozatu ere. Garaipen bakoitza Champions-eko finala balitz bezala ospatu dugu. Galdu ere, denok batera galdu dugu". Batez ere talde izaera indartzea ekarri dute estuasunek. "Multzo trinko bat osatu dugu".

Izan ere, behin dinamika txar batean sartuta zaila izaten da hortik ateratzea. Batzuetan zorte faltagatik, beste batzuetan partida ongi ixten ez jakiteagatik, aldapatsua egin zaie jokalariei liga. "Egoera txar bat zuzentzen duzu, baina hurrengo partidan beste toki batzuetatik etortzen zaizkizu hutsegiteak. Urte guztian eduki dugun zorte txarrari buelta eman dio erabaki administratibo horrek", azaldu du Aizpuruak.

**Hurrengo urteari begira**

Entrenatzailea hasi da dagoeneko hurrengo denboraldia prestatzen. Mailari eusteak indarra eman dio jokalariak erakartzeko. "Herri guztiak ikusi du zenbat sufritu dugun, eta espero dut bat baino gehiago hurbiltzea laguntzera, eta sortu dugun taldetxo honi jarraipena ematera". Taldetik joandako futbolariak berreskuratzea da orain entrenatzailearen intentzioa. "Michelin bete eta jendeak futbolaz gozatzea da gure helburua".



28. minutuan entsegu bat egin zuen jokalari lasarteoriatarrak. AINHOA MURIEL

## Datorren urtean ere Ohorezko Mailan jokatuko du Puertasek

Mailari eusteko itzuliko partidan 30-17 irabazita, Hernani Errugbi Taldea onenen artean izango da datorren denboraldian

**Txintxarri**

Larunbatean nerbioak kontrolatzea ez da lan erraza izan Hernani Errugbi Taldearentzat; hil ala biziko partida jokatu dute Ohorezko Mailari eusteko. Ciencias Cajasol Sevillako taldearen aurka lehiatu dute, eta joaneko partidan lau puntuko aldea atera bazieten ere, hernaniarrak erraz irauli dute egoera. Nagusi izan dira partida guztian. Puntu bakoitza erabakiorra izan da helburua lortzeko, eta hori antzeman da jokoaren hasiera-hasieratik. Lehen zatiko 28. minutuan entsegua egin du Puertasek. Txalo artean eskertu dute jarraitzaileek jokalariek egindako lana, baita horiek zaleei emandako babes guztia.



# Kirola sustatzen herrian, denboraldiz denboraldi

Festa giroan itxi du Ostadar SKTk 2017-18 kirol denboraldia. 35 urte daramatza elkarteak lanean; herrian kirola sustatzea du helburu. Zailtasunak zailtasun, hazten segitzen du klubak. "Pozik gaude hazten ari garelako, emakumezkoen kirolean batez ere"

**Iñigo Gonzalez**

Villa Mirentxu ondoko trinketean elkartu ziren Ostadar SKTko kideak, denboraldi amaierako festa ospatzeko. Beste sasoi bat, herriko kirolaren alde lanean. 35 urte, honezkero. Gero eta lasarteoriatar gehiagok osatzen dute kirol elkartea, eta herriko entrenatzeko instalazioak "urriak eta zaharkituak" badaude ere, urtez urte kirol emaitza bikainak lortzen dituzte. Sekzio berriak ere ari dira sortzen: azkenak, kirol egokitua eta ipar martxa. "Pozik egoteko arrazoiak baditugu: gero eta kirolari gehiagok osatzen dute kluba; emakumezkoen kirola ari da hazten, bereziki".



Saritu guztiek talde argazkia atera zuten ekitaldia bukatu aurretik. TXINTXARRI

Motorrak berotzeko, hainbat jokotan hartu zuten parte gazte eta helduek, trinketean bertan. Ondoren, Ostadar SKTko sail bakoitzak sariak eman zizkien jokalariei. Horiek ez dira Ostadar SKTk banatzen dituen bakarrak. Auzolan saria ematen du urtero-urtero, herrigintzan diharduten lasarteoriatarren jarduna aitortze aldera. Aurtengoa Andoni Iparragirre txistulariak irabazi du. "Andoniren txistu doinuek hasiera ematen diote Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiari", ohartarazi dute Ostadar SKTko kideek. Lasarte-Oriarrak muxikoaren sortzaileetako bat da Iparragirre, eta herriko hainbat festatan egoten da present, txistua eskuan duela.

### Egindako lana eskertuz

Goizeko une hunkigarrienetako bat iritsi zen ondoren. Ostadarrek, esan bezala, 35 urte daramatza herriko kirolaren alde lan egiten. Herriko hainbat pertsonak osatzen dute klubaren zuzendaritza: egunak eta egunak pasatzen dituzte Geltoki kaleko lokalean bilduta, buruari eragiten, dauzkaten baliabide eskasekin ahalik eta kirol eskaintza onena emateko. Zuzendaritzako kideez gain, beste hainbat pertsonak ere egiten dute lan klubaren alde. Joxe Belartietak eta Mari Olanok, adibidez. Aurten erabaki dute erretiroa hartzea, eta, horregatik, omendu egin zituen Ostadarrek. Txapela eta lore-sorta jaso dituzte, eta euren bilobek agurra dantzatu zieten.

Beltzak errugbi eskolako kideek saltxitxa pintxoak banatu zituzten gero, arkupeetan.

## Buruntzazpiko Fursenko, Euskadiko txapeldun

Kadeteak Lazkao eta Atauneko probetako lehen postuetan izan dira, eta taldekako garaikurra lortu dute

**Txintxarri**

Infantil mailako Euskadiko txapelketa jokatu da Arrasaten. Txirrindulariek bi proba egin behar izan dituzte; ginkana eta lasterketa. Lasterketako proban Buruntzazpiko Daniel Fursenkok txapela eskuratu du.



Kadeteak Lazkaoko podiumean. E. POZO

Bestalde, kadeteak bi probatan izan dira asteburuan, Lazkao eta Ataunen. Buruntzazpiko gaztetxoak podiumean izan dira, eta taldekako garaikurra lortu dute bietan.

Larunbatean, maiatzaren 26an, Lazkaon Asier Pozok bigarren postua eskuratu du, Beñat Carbayeda laugarren izan da eta Jaime Romero bosgarren. Igandean berriz, Jaime Romero eta Beñat Carbayeda podiumean izan dira, bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. Asier Pozok seigarren amaitu du proba.



OSTADAR IPAR MARTXA

## Bazkaria, irteera garaia amaitzeko

Ostadar Ipar Martxako kideek irteeren denboraldiari amaiera eman diote. Larunbatean taldeak Lasarte-Oriako mugen bueltan irteera egin behar bazuen ere, eguraldiagatik bertan behera geratu zen. Ostadarreko jaialdian parte hartu ostean, guztiak Xirimiri elkartean batu ziren bazkaltzeko. Udan entrenatzen jarraituko dute; asteazkenero 19:30ean dute hitzordua.

## Ikasturteari amaiera emanaz

Eskola Kirola egitasmoko 60 bat gaztetxo bildu ziren larunbatean Michelin kirol gunean. Eguraldi txarra dela eta, LH1 eta LH6 maila arteko kirolari gazteak ikasturteko azken festa pilotalekuan egin behar izan dute. Antolatutako ekintzak ere moldatu behar izan dira. Horrenbestez, joko kooperatiboak eta herri kirolak egin dituzte. Indarrak berreskuratzeko amaieran askari gozoa dastatu dute.



TXINTXARRI

## LOKE ederki Euskadikoan

LOKEko gimnastek amateur mailako Euskadiko txapelketa jokatu dute. Garazi Gomezek zilarrezko domina lortu du, eta Senior A mailako taldeak brontzezkoa. Pilotekin egindako ariketan eskuratu dituzte. Pozarren agertu dira taldeko entrenatzaileak, gimnastek egindako lana dela eta. Bestalde, 2018-2019 denboraldiko aurrematrikulazioa ekainaren 1etik 15era egingo dela jakitera eman dute.



MAITE RUEDA

## ZORION AGURRAK



**Sergio**
Zorionak Sergio!! Bost muxu handi zure familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu.



**Ane**
Zorionak printzesa, zure 4. urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Aita, ama eta familiaren partetik, muxu asko!!



**Nahia**
Zorionak Nahia! 15 muxu handi familiaren partetik!



**Hugo**
Zorionak bihotza!!!! Infinitoraino maite zaitugu!!! 5 muxu pottolo eta besarkada handi handia!!

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarri-ren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak eta bidali zure zorion agurra formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako
zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## JAIOTAKOAK

**Adei Sastre Alegre.** Maiatzaren 22an.

## HILDAKOAK

**Manuel Rozas Garcia.** Maiatzaren 25ean.
**Iñaki Egizabal Arotzena.** Maiatzaren 25ean.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | |
|---|---|
| Ostirala, 1 | ORUE |
| Larunbata, 2 | ORUE |
| Igandea, 3 | ORUE |
| Astelehena, 4 | DE MIGUEL |
| Asteartea, 5 | LASA |
| Asteazkena, 6 | GIL |
| Osteguna, 7 | ACHA-ORBEA |

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**
Castilla-Larburu:
Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (*www.cofgipuzkoa.com*).

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 943 372 863

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINTZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

## AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**

ALOKAIRUAN EMAN

Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 526 766.

**LANA**

ESKAERA

Pertsona adinduak zainduko nituzke asteburuetan, jai egunetan edo ospitaletan gauean. 606 661 048/943 404 015.

Pertsona arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko. Garbiketa lanak ere egiteko prest. 631 761 161.

Pertsona arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Garbiketa lanak ere egiteko prest. 631 761 161.

Pertsona edadetuak zaintzeko lan bila nabil. Garbitzeko, asteburuan lan egiteko edo orduka aritzeko prest nago, externa moduan. Telefonoa: 671763558.

**SALEROSKETAK**

SALDU

Kotxea Salgai. Renault Clio, 2006. Hiru atekoa, ondo zaindua eta gutxi erabilia. 49.900 km. 1.500 euro. Telefonoa: 687 355 095.

## OHARRAK

### Txoko eta kanpaldietako bilerak

Ttakun KEk antolatzen dituen Txokoetako eta kanpaldietako bilerak ekainaren 7 eta 8an izango dira Manuel Lekuona kultur etxean.

HH3-HH4 mailakoen Txokoen bilerak ekainaren 7an dira: euskarazkoa 17:45ean eta gaztelerakoa 17:00etan. Ekainaren 8an, berriz, HH5-LH6 mailakoen txanda da: euskarazkoa 17:45ean eta gaztelerakoa 19:00etan. Astigarragako irteerako bilera ekainaren 8an, 19:30an da.

Kanpaldietako bilerak ekainaren 8an dira: Atxondo 17:00etan eta Donemiliaga 18:15ean.

### San Pedro jaietan taberna-barrak jartzeko eskaera epea

San Pedro Jaietan kanpoko taberna-barrak ipintzeko eskaeraren epea irekia.

Lasarte-Oriako udaleko Erregistroan aurkeztu beharreko agiriak eskaera, eske-orri normalizatuan eta neurriak dituen krokis edo marrazkia.

Bete behar diren baldintzak eta informazio gehigarria udalaren webgunean albisteen atalean eta 943 376 179 telefonoan eskuragarri dago. Epea ekainaren 8an amaitzen da.

### Udal Musika Eskolako aurrematrikula garaia

Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako aurrematrikula egiteko epea ireki da.

Derrigorrezkoa da aurrematrikula betetzea uztailean matrikula egin ahal izateko, arduradunez jakitera eman dutenez

Interesatuek Manuel Lekuona kultur etxean egin dezakete inskripzioa, 9:00etatik 14:00etara, baita informazio gehiago eskuratu ere. Azken eguna ekainaren 8a da.

### Dantza ikastaroetako aurrematrikula garaia

Lasarte-Oriako Kultura sailak eskaintzen dituen dantza ikastaroen aurrematrikula garaia ekainaren 11an ireki eta ekainaren 22an amaituko da.

6-12 urte arteko gaztetxoek eta helduek eman dezakete izena. Ikasturtea urrian hasiko da.

Interesatuek aurreinskripzioa egin eta informazio gehiago eskuratu dezakete Manuel Lekuona kultur etxean. Matrikula garaia irailean izango da.

### Compak Sporting txapelketa

Buruntz-Azpi ehiza elkarteak Compak Sporting txapelketa antolatu du ekainaren 3an, igandea, Arkalen. Izena eman nahi duten bazkideek elkartean egin dezakete.

### Texas Lasartearraren infantilen deialdia

Texas Lasartearra futbol taldeak 2004. eta 2005. urtean jaiotako haurrei deialdia egiten die 2018-2019 denboraldiko infantil mailako taldea osatzeko.

Saioak ekainaren 5, 6 eta 7an izango dira Michelingo futbol zelaian, 17:00etatik 18:30era.

Informazio gehiago *texaslasartearra@gmail.com* helbidean edo 646 197 292 telefonoan eskuratu daiteke.

# PLAZAN BAZAN




## Arrotza

Elementu hauen artetik batek ez du multzoan egoteko baldintza nagusia betetzen. Zein da eta zergatik?



## Han eta hemen

Erreparatu ondo. Badira hogei gauza bi irudietan ageri direnak. Ikusten al dituzu?







txintxarri
www.txintxarri.eus

**Argitaratzailea**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

**Administraria**
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

**Publizitatea**
Arantxi Zulaika.

**Laguntzaileak**
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

**Banatzaileak**
Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes, Maialen Goikoetxea.

**Informatikoa**
Beñat Gonzalez

**PUBLIZITATEA**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

**Inprimategia**
Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94
**ISSN:** 1134-0053
**Tirada:** 8.000 ale

TXINTXARRIk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA
LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Antzerki eta dantza hamabostaldia.** Kukuka Antzerki eta dantza eskolak Zabaletako Jaietan emango dio hasiera antzerki eta dantza hamabostaldiari ikasle eta irakasleen desfilearekin. Hitzordua larunbatean eguerdian izango da. Larunbatetik ekainaren 15era, ikasleek antzerki eta dantza emanaldiak eskainiko dituzte Manuel Lekuonan, baita Lasarte-Orian zehar ere.
**Lasarte-Oria, larunbatetik ekainaren 15era**



**LASARTE-ORIA Zabaletako jaiak**
Gaur, ostirala, Teresa sorgiña iritsiko da Zabaletara. Hainbat ekitaldi izango dira etorrera ospatzeko. Asteburuan zehar, haur, heldu eta gazteen gustuko ekintzak izango dira. Ezusteko ugari ere izango da. Igadean, Ohiko proba mistoa baino lehen sega erakustaldia izango da.
**Antonio Blas plaza, asteburua**

## OSTIRALA 1

**LASARTE-ORIA Zabaletako Jaiak**
Teresa sorgina iritsiko da Zabaleta auzora:
**18:00etan,** Antzerkia. Kukuka antzerki eta dantza eskola.
**18:30ean,** Txokolatada.
**18:45ean,** Kalejira Teresa Sorgiñarekin.
**19:00etan,** Teresa Sorgiñari ongi etorria.
**19:05ean,** Jaietako pregoia.
**19:20ean,** Sorgin dantza herrikoia.
**19:30ean,** Jalgune eta Gazte Kluba.
**20:00etan,** Gas-gas + japoniar bonbak.
**20:30ean,** Afari auzotarra.
**23:00etan,** Joxerra eta Eusebioren solasaldi musikala.
**23:30ean,** Gaitzerdi erromeria.
**Antonio Blas plaza, 18:00etatik aurrera.**

**USURBIL Tomaxen abenturak**
Tomaxen abenturak lana eskainiko da. 4 urtetik gorako haurrei zuzendutako saioa. Doakoa.
**Santueneako frontoia, 17:00etan.**

## LARUNBATA 2

**LASARTE-ORIA Zabaletako Jaiak**
Zabaletako Jaien bosgarren eguna:
**09:00etan,** Diana.
**11:00etan,** 5. Sorgin krosa.
**12:00etan,** Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideen desfilea.
**15:30ean,** Joxe Migel Aranzadiren oroimenez XI. Mus txapelketa.
**17:30etik 20:00etara,** Zinta karrera eta umeentzako herri-kirolak. Porrotxek girotuko du arratsaldea kantu eta dantzekin.
**20:00etan,** Gas-gas + japoniar bonbak.
**20:05ean,** Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Ane Labaka, Unai Agirre eta Unai Muñoa. Gai-jartzaile: Uxue Loinaz.
**21:00etan,** Afari herrikoia.
**23:30ean,** Akelarre dantza.
**00:00etan,** Kontzertuak:
The Lobster rock taldea
Joxpa Erromeria
DJ Terexa
**Antonio Blas plaza, 18:00etatik aurrera.**

**LASARTE-ORIA Garbiketa herrikoia**
Oria ibai ertzaren garbiketa herrikoia egingo da Aste Berdearen barruan. Parte hartzeko 943 670 249 zenbakian izena eman behar da.
**Okendo plaza, 09:30ean.**

**LASARTE-ORIA Afari solidarioa**
Lasarte-Oriako Misioetako taldeak afari solidarioa antolatu du. Jasotako dirua Keniako proiektu batetara bideratuko da.
**Arantzazuko Ama Birjina elizako lokalak, 20:30ean.**

## IGANDEA 3

**LASARTE-ORIA Zabaletako Jaiak**
Zabaletako auzotarrek agur esango diote Teresa sorginari:
**09:00etan** Diana.
**11:00etan,** Kukuka dantza: euskal dantza eta sorkuntza.
**11:00etan,** Patata tortila txapelketa.
**12:00etan,** Oaintxe in deu txaranga.
**12:15ean,** Segalariak: Julen Gabirondo eta Jon Otaegi.
**13:15ean,** Proba mista nagusia.
**14:30ean,** Bazkari herrikoia.
**17:30ean,** Xumelaren kantu festa.
**18:00etatik 20:00etara,** Errebal taldea.
**18:30ean,** Toka txapelketa.
**20:30ean,** Traka Teresa sorgiñari agurra.
**Antonio Blas plaza, 18:00etatik aurrera.**

## ASTELEHENA 4

**LASARTE-ORIA Antzerki eta dantza hamabostaldia**
Kukuka antzerki eta dantza eskolako antzerki ikasleen erakustaldia izango da:
- *Sei anaiak.* LH1-2 Landaberri.
- *Arratsalde bat zineman.* LH1-2 Landaberri.
- *Terrazarrak.* LH1-3 Zubieta.
- *Dendatarrak.* LH1-3 Zubieta.
- *Zirkuz marabillux!* LH1-3 Sasoeta.
- *Zinema Sesion!* LH1-3 Sasoeta.

**Manuel Lekuona, 19:00etan.**

**LASARTE-ORIA Bisita**
Urnietako ontzi-hondakinen sailkatze plantara bista egingo da. Parte hartzeko 943 670 249 zenbakian izena eman behar da. Aste Berdeko ekintza.
**Anbulategia, 09:30ean.**

## ASTEARTEA 5

**LASARTE-ORIA Horma-irudia**
Horma-irudia egingo da botilen plastikozko tapoiekin. Poltsa berrerabilgarriak ere banatuko dira. Aste Berdeko ekintza.
**Okendo plaza, 10:00etatik 13:00etara.**

**LASARTE-ORIA Hitzaldia**
Paula Casaresek *Komunikazioa eta haurraren zoriontasuna* hitzaldia eskainiko du.
**Antonio Mercero gunea, 17:00etan.**

**LASARTE-ORIA Entsegua**
Sorgin dantza prestatzeko entsegua egingo da. Eguraldi txarrarekin, Landaberri Garaikoetxeako patioan egingo da.
**Okendo plaza, 20:00etan.**

## ASTEAZKENA 6

**LASARTE-ORIA Horma-irudia**
Horma-irudia egingo da botilen plastikozko tapoiekin. Poltsa berrerabilgarriak ere banatuko dira. Aste Berdeko ekintza.
**Okendo plaza, 10:00etatik 13:00etara.**

**LASARTE-ORIA Antzerki eta dantza hamabostaldia**
Kukuka antzerki eta dantza eskolako antzerki ikasleen erakustaldia izango da:
- *Aupa Etxebeste.* LH5-6 Sasoeta.
- *Mafia.* LH5-6 Sasoeta.

**Manuel Lekuona, 19:00etan.**

## OSTEGUNA 7

**LASARTE-ORIA Horma-irudia**
Horma-irudia egingo da botilen plastikozko tapoiekin. Poltsa berrerabilgarriak ere banatuko dira. Aste Berdeko ekintza.
**Okendo plaza, 16:30etik 19:30era.**

**LASARTE-ORIA Antzerki eta dantza hamabostaldia**
Kukuka eskolako ikasleek antzerki eta dantza emanaldiak egingo dituzte.
**Kaleetan zehar, arratsaldea.**

**LASARTE-ORIA Entsegua**
Sorgin dantza prestatzeko entsegua egingo da.
**Okendo plaza, 20:00etan.**

## ZINEMA

**USURBIL**

URBIL

**Los extraños: Cacería nocturna**
Ostirala: 16:00, 18:00, 20:00, 22:30, 00:30.
Larunbata: 16:00, 18:00, 20:00, 22:30, 00:30.
Igandea: 16:00, 18:00, 20:00, 22:30.

**El malvado zorro feroz**
Ostirala: 18:00.
Larunbata: 16:15, 18:00, 19:00.
Igandea: 16:15, 18:00, 19:00.

**Han Solo: Una historia de Star Wars**
Ostirala: 16:20, 18:00, 19:10, 20:50, 22:05, 23:40.
Larunbata: 16:20, 18:00, 19:10, 20:50, 22:05, 23:40.
Igandea:16:20, 18:00, 19:10, 20:50, 22:05.

**Deadpool 2**
Ostirala: 16:45, 19:20, 20:00, 22:00, 00:35.
Larunbata: 16:45, 19:20, 20:00, 22:00, 00:35.
Igandea: 16:45, 19:20, 20:00, 22:00.

**Campeones**
Ostirala: 16:15, 18:45, 21:15, 23:45.
Larunbata: 16:15, 18:45, 21:15, 23:45.
Igandea: 16:15, 18:45, 21:15.

**Vengadores: Infinity War**
Ostirala: 16:00, 19:00, 22:00, 00:10.
Larunbata: 16:00, 22:00, 00:10.
Igandea: 19:00, 22:00.

**Sherlock Gnomes**
Ostirala: 16:00, 18:30.
Larunbata: 16:00, 18:30.
Igandea: 16:00, 18:30.

**Verdad o Reto**
Ostirala: 15:50, 20:00, 22:15, 00:20.
Larunbata: 15:50, 20:00, 22:15, 00:20.
Igandea: 15:50, 20:00, 22:15.

**Noche de juegos**
Ostirala: 16:15, 22:00.
Larunbata: 22:00.
Igandea: 22:00.


EAGI
LHII ERAIKIN ADIMENDUNEN GARAPEN IRAUNKORRA
CIFP DESARROLLO SOSTENIBLE EN EDIFICACIÓN INTELIGENTE
LANBIDE HEZIKETA
ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK
AURREMATRIKULA
EKAINAREN 4tik 15ra
ERAIKUNTZA IRAUNKORRA
www.eagi.eus
ETXE BAT ERAIKITZEKO GAI IZANGO ZARA 2 URTETAN
Donostia Etorbidea, 5 Lasarte-Oria Gipuzkoa
T.: 34 943 569 222 M.: eagi@eagi.eus
DEITU, BERTARATU, ETA INFORMA ZAITEZ!
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ERAIKUNTZA-OBRAK ANTOLATZEKO ETA KONTROLATZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
BARRUKO OBRAK, DEKORAZIOA ETA BIRGAITZEKO TEKNIKARIA
ERAIKUNTZAKO TEKNIKARIA


EKAINAK 10
Gizakatea
gure esku dago
LASARTE-ORIA
Usurbil (Ugaldea)
2 Km • 1.000 LASARTE-ORIAR
Belartzako biribilgunea
IZEN-EMATEA
Mahaiak Okendo plazan
Asteazkenetan 12:00-13:30
Ostegun eta ostiraletan 19:00-20:30
Larunbatetan 12:00-13:30
ORDUA
10:30 Okendo plazan
11:30 Prest! Bakoitza bere tokian
12:00-12:30 Gizakatea!


ELEKTRIZITATEA/ ELEKTRONIKA
MANTENTZE-LANAK/ ENERGIA
ADMINISTRAZIOA
FABRIKAZIO MEKANIKOA
AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK!
www.lhusurbil.eus
Goi eta Erdi Mailako ZIKLOAK
Lanerako Prestakuntza IKASTAROAK
Berrikuntza PROIEKTUAK
...
EKAINA
ASTELEHENA ASTEARTEA ASTEAZKENA OSTEGUNA OSTIRALA LARUNBATA IGANDEA
1 2 3
4 5 6 7 8 9 10
11 12 13 14 15 16 17
18 19 20 21 22 23 24
25 26 27 28 29 30
Ekainaren 4tik 15era
CIFP USURBIL LHII
USURBILGO LANBIDE ESKOLA